

LAU LAGUNAK

Testua: JACOB eta WILHELM GRIMM

Egokitzapenaren itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Ilustrazioak: GABRIEL PACHECO

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 22 cm. 36 or. 13 €

Lau lagunak (euskaraz)

ISBN 978-84-9172-235-9. Album ilustratua. Ipuin tradizionalak.

Los cuatro amigos (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-92608-30-0. Álbum ilustrado. Cuentos tradicionales.

Os catro amigos (galegoz)

ISBN 978-84-8464-733-1. Álbum ilustrado. Os contos do trasno.

Els quatre amics (katalanez)

ISBN 978-84-18558-19-1. Àlbum il·lustrat. Contes tradicionals.

Os quatro amigos (portugesez)

ISBN 978-989-8205-40-7. Álbum ilustrado. Contos tradicionais.


I musicanti di Brema (italieraz)

ISBN 978-84-1343-070-6. Albo illustrato. I racconti tradizionali.

Bazen behin gizon bat, asto bat zeukana. Urte askoan zehar, aberea errotarako zamari lana egina zen, baina orain, zahartuta eta nekatuta, jada ez zuen lan hartarako indarririk. Hortaz gizonak, diru pixka bat aurreztearren, jaten emateari utzi zion. Astoak, etorkizun beltza zuela ikusirik, Bremenera alde egitea erabaki zuen, han kale-musikari ibiltzeko....

Asto bat, txakur bat, katu bat eta oilar bat dira Grimm anaien ipuin honetako protagonistak, eta zailtasunen aurrean ez etsitzeko adorea ematea du helburu; izan ere, beti izango dira aurrera egiteko aukerak. Inor ezinbestekoa ez den ideiatik abiatutik, ipuin honek erakusten du bizitzan denok garela gai eginkizunen bat egiteko. Gainera, animalioek basoko etxe batean topatutako gaizkileak uxatzea lortzen dutelarik, batasunak indarra dakarrela iradokitzen du. «Lau lagunak», *Bremengo musikariak* izenez ere ezaguna, izaera liberal, ireki eta abegikorrek hiri alemanaren ipuinik nabarmenena da. 1953tik, estatua bat dago udaletxearen ondoan laukote paregabearen oroigarri.

Gabriel Pachecoren ilustrazioek, haren estilo ezaguterrazean, giza itxurako animaliak aurkezten ditu, egokierarako apainduak eta karakterizatuak. Irudien soiltasunak, koloreen bizitasunak eta testuen berotasunak gaurkotutako klasiko bihurtzen dute liburu hau.



■ **Gala:** Grimm anaien ipuin klasiko baten egokitzapena.

■ **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** musika, etxeko animaliak; norbere buruaren mugak gainditzea, elkartasuna, batasuna; Grimm anaien beste ipuin batzuk: «La casita de chocolate» y «Zazpi antxumeak»; «El pollito de la avellaneda» y «12 poemas de Federico García Lorca» (KALANDRAKA) albumen ilustratzaile berarena.

■ **Liburu-aurreapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/lau-lagunak-eusk>

Jacob (1785-1863) & **Wilhelm** (1786-1859)

Grimm (Hanau. Hesse, Alemania)

Grimm anaiak, beren ipuinengatik ez ezik, hizkuntzalari gisa egindako lanengatik ere dira ezagunak; hainbeste, non filologia alemanaren sortzaileak izatea aitortu baitzaie. Biblioteka zereginetan eta unibertsitateko irakaskuntzan jardun zuten biek, Kessel-en. Hiri horretan hasi ziren ahozko tradizioak ipuinak biltzen, gerora hainbat ediziotan argitaratu zituztenak.

Gabriel Pacheco

(Mexiko DF, 1973)

Eszenogrfian graduatua Mexikoko Arte Ederren eta Literaturaren Institutu Nazionalean. Marrazketa ikasi zuen Arte Plastikoen Eskola Nazionalean. 1997tik haur eta gazteentzako liburuak ilustratzen dihardu. Hainbat aintzatespen jaso ditu: Città de Chioggia Ilustrazioko Nazioarteko X. Lehiaketa (Venezia, 2004), Mexikoko Liburu Ilustratuaren Nazioarteko Saria 2000 eta 2002an, Haur eta Gazte Liburuaren Boloniako Nazioarteko Feriako aipamen berezia 2009an, Mexikoko Diseinatzaileen Kontseiluko Quorum Saria 2009an. Mundu osoko argitaletxeentzat lan egin du.

<http://www.instagram.com/gabrielpacheco00>

www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com